

## Xedapen Orokorrak

OGASUN ETA  
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA  
INGURUMEN ETA  
LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

6415

181/2008 DEKRETUA, azaroaren 4koa; honen bidez, Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko-finantzarioaren Araudia onartzen da.

Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legeko VIII. Kapituluari, uraren kanona sortu eta arautzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko berezko zerga gisa; aldi berean, ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari, arauketa hori garatzeko erregelamenduzko xedapenak gaikuntza orokorrean emateko; legearen aginduetan jasota dauden eta araudiari egin zaizkion berariazko erreferentzietan osatzen dute gaikuntza hori.

Dekretu hau 9 kapitulu eta 26 artikulutan egituratuta dago, eta haren helburua, beraz, uraren kanona ezartzeko arauak garatzea da; kanon hori Euskal Autonomia Erkidegoko zerga bat da, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legeak sortu eta arautua.

Araudiaren harira I. kapituluari egindako erreferentzia orokorren ondoren, Uraren Euskal Agentziaren zereginei buruz eta uraren kanona ezartzeko araudiari buruz, II. kapituluari garatzen dira ezartzeko den egitatearen inguruko alderdiak, salbuespenak eta hobariak. Aurrerago, zergaren subjektuei eta sortzapenari eskainitako artikulua daude: III. kapituluari eta IV. kapituluari, hurrenez hurren.

Era berean, zerga-oinarriari buruzko V. kapituluari, oinarria zehazteko metodoak garatzen dira: zuzeneko zerbatespena, zerbatespen objektiboa eta zeharkako zerbatespena, 1/2006 Legean eta zergentzat ezartzeko den ordezkiko araudian ezarritakoaren arabera. Bestalde, VI. kapituluari karga motari eta kuotari buruzkoa da.

Kanona kudeatzeko prozedurak ere ezartzen dira, kasuaren arabera: hirugarrenak urez hornitzea -VII. kapituluari- edo erabiltzaileek zuzenean egindako aprobetxamenduak -VIII. kapituluari.

Azkenik, IX. kapituluari, hainbat erreferentzia egiten zaizkie arau-hauste eta zehapenengatik prozedurei, eta egiaztatze eta ikertzeko prozedurari.

Dekretua hauekin osatzen da: bi xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor eta hiru azken xedapen.

## Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

6415

DECRETO 181/2008, de 4 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Régimen Económico-Financiero del Canon del Agua.

En la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, en su Capítulo VIII, se crea y regula el canon del agua como tributo propio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al mismo tiempo que se faculta al Gobierno Vasco para dictar las disposiciones reglamentarias de desarrollo de dicha regulación con una habilitación general, que se complementa con las específicas llamadas al reglamento contenidas en los diversos preceptos de la ley.

El objeto de este Decreto, estructurado en 9 capítulos y 26 artículos es, por tanto, el desarrollo normativo para la aplicación del canon del agua, un impuesto de la Comunidad Autónoma del País Vasco, creado y regulado en la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

Tras las referencias generales realizadas en el Capítulo I al objeto del Reglamento, a las funciones de la Agencia Vasca del Agua, y a la normativa de aplicación al canon del agua, en el Capítulo II se desarrollan los aspectos relativos al hecho imponible, las exenciones y las bonificaciones. Más adelante, se encuentran los artículos dedicados a los sujetos del tributo y al devengo, Capítulo III y Capítulo IV, respectivamente.

Así mismo, en el Capítulo V, referido a la base imponible, se desarrollan los métodos de determinación de la base: estimación directa, estimación objetiva y estimación indirecta; según lo dispuesto en la Ley 1/2006 y en la normativa supletoria de aplicación para los tributos. El Capítulo VI está dedicado al tipo de gravamen y la cuota.

También se establecen sendos procedimientos de gestión del canon, según se trate de suministros de agua a terceros, Capítulo VII, o de aprovechamientos efectuados directamente por los usuarios y las usuarias, Capítulo VIII.

Por último, en el Capítulo IX se hacen diferentes referencias a los procedimientos por infracciones y sanciones, así como al procedimiento de comprobación e investigación.

El Decreto se completa con dos disposiciones adicionales, tres disposiciones transitorias y tres disposiciones finales.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, eta Jaurkitzaren Kontseiluak 2008ko azaroaren 4an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.**– Xedea.

Araudi honen helburua uraren kanonaren araubide ekonomiko-finantzarioaren arauak garatzea da; kanona Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legeak sortu eta arautu zuen.

**2. artikulua.**– Funtzioak.

1.– Uraren kanona kudeatu, kitatu, bildu eta ikuska-tzea Uraren Euskal Agentziaren zereginak dira.

2.– Hala ere, betearazteko bidean dagoen bilketa, horretarako izenpetutako hitzarmena betez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren diruzaintzan eskumena duen sailak egin ahal izango du, eta batutako sarrerak Uraren Euskal Agentziari helarazi.

**3. artikulua.**– Ezarpen-araudia.

Uraren kanona xedapen hauetan aurreikusitakoak arautzen du: Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legea, erregelamendu hau eta berau garatzeko araudia, eta zergen araudi orokorra.

II. KAPITULUA  
ZERGAPEKO EGITATEA, SALBUESPENAK ETA  
HOBARIAK

**4. artikulua.**– Zergapeko egitatea.

1.– Uraren kanonaren zergapeko egitatea Euskal Autonomia Erkidegoan eginiko uraren kontsumo erreal edo potentziala da, ur hori erabiltzeak ingurunean izan dezakeen eraginagatik.

2.– Aurreko atalean ezarritakoaren arabera, uraren kanona ondoko kasu hauei ezarriko zaie:

a) Erabiltzaileari hirugarrenek hornitutako uraren kontsumoari.

b) Lurrazaleko uretatik, lurpekoetatik, euri-uretatik edo isurketa-uretatik, itsasoko uretatik edo beste edozein jatorritako uretatik erabiltzaileek berek zuzenean hartutako uraren kontsumoari.

c) Uraren edozein kontsumo edo erabilerari, zeinahi delarik ere uraren jatorria edo hornikuntza-iturria, erabilera produktibo bati loturik egon zein ez, kontagailu homologatu bidez neurtuta egon zein ez, fakturatuta egon zein ez.

En su virtud, a propuesta de las Consejeras de Hacienda y Administración Pública y de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 4 de noviembre de 2008,

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.**– Objeto.

Este Reglamento tiene por objeto el desarrollo normativo del régimen económico-financiero del canon del agua, creado y regulado en la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

**Artículo 2.**– Funciones.

1.– La gestión, liquidación, recaudación e inspección del canon del agua son funciones que corresponden a la Agencia Vasca del Agua.

2.– No obstante, la recaudación en vía ejecutiva podrá realizarse, en virtud de convenio suscrito al efecto, por el Departamento de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco competente en materia de tesorería, correspondiendo los ingresos obtenidos a la Agencia Vasca del Agua.

**Artículo 3.**– Normativa de aplicación.

El canon del agua se rige por lo previsto en la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, este Reglamento y la normativa de desarrollo, así como en la normativa general de tributos.

CAPÍTULO II  
HECHO IMPONIBLE, EXENCIONES Y  
BONIFICACIONES

**Artículo 4.**– Hecho imponible.

1.– Constituye el hecho imponible del canon del agua el consumo real o potencial del agua en el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco por la afección al medio que su utilización pudiera producir.

2.– Conforme a lo establecido en el apartado anterior, el canon del agua se aplicará:

a) Al consumo de agua suministrada al usuario o a la usuaria por terceras personas.

b) Al consumo de agua procedente de captaciones de aguas superficiales, subterráneas, pluviales o escorrentías, marinas o de cualquier otra procedencia efectuadas directamente por los propios usuarios y usuarias.

c) A cualquier consumo o utilización de agua, independientemente de su procedencia o fuente de suministro, esté asociado o no a un uso productivo, sea o no medido mediante contadores homologados y sea o no facturado.

**5. artikulua.**– Salbuespenak.

Uraren kanona ordaintzetik salbuetsita geratzen dira honako kontsumo hauek:

1.– Etxeko erabileretarako egindakoa, pertsona eta eguneko 130 litrorainokoa.

Dekretu honen ondorioetarako, uraren etxeko erabileratzat hartuko dira etxebizitzako jardueretatik eratorritako ur-kontsumoak, eta horien ondorio izango diren hondakin-urak, nagusiki, pertsonen metabolismoak eta etxeko eginkizunek sortuak.

2.– Honako hauetarako egindako kontsumoa: ikerkuntza eta kontrol lanak, aprobetxamendua helburu ez duten zundaketa esperimentalak eta ur-jabari publikoa kudeatu eta hobetzeko lanak, Uraren Euskal Agentziak edo beste administrazio publiko batzuek Agentziaren baimen-araubidearen pean egin edo sustatuak diren.

3.– Suteak itzaltzeko lanetan erabilitako uraren kontsumoa eta oso behar handiko egoeretan edo hondamendietan agintari publikoek agindutakoak.

4.– Etxean ur-hornikuntzarik ez duten hiriguneetan egiten diren uraren etxeko erabilerak. Salbuespen hori ez zaie ezarriko etxean ur-hornikuntza baduten hiriguneko etxebizitzei.

5.– Ur geza erabili ordez, itsasoko ura hartzea.

Salbuespen hori ezartzeko, zergadunak agiri bidez egiaztatu beharko dio Uraren Euskal Agentziari baduela Administrazio eskudunak emandako baimena.

6.– Ura berrerabiltzea eta ura kontsumitu gabe energia lortzeko edo industriako beste erabilera batzuetarako erabiltzea, betiere uraren kalitatea eta kopurua aldatzen ez denean.

Salbuespen hori ezartzeko, zergadunak agiri bidez egiaztatu beharko dio Uraren Euskal Agentziari baduela uraren aprobetxamendua egiteko emakida eta ura isurtzeko baimena, kasu bakoitzean dagokion Administrazioak emana.

7.– Urtean 50 metro kubiko baino gutxiagoko kontsumoa, etxetarako ur-hornikuntzaren sarekoa ez denean.

Salbuespen hori ezartzeko, zergadunak agiri bidez egiaztatu beharko dio Uraren Euskal Agentziari baduela uraren aprobetxamendua egiteko emakida edo baimena, Administrazio eskudunak emana.

**6. artikulua.**– Hobariak.

1.– Zerga-oinarriaren % 95eko hobaria emango da, iturri publikoak eta monumentalak hornitzeko ura

**Artículo 5.**– Exenciones.

Quedan exentos de pago del canon del agua los consumos siguientes:

1.– El realizado para los usos domésticos, hasta 130 litros por persona y día.

A los efectos del presente Decreto se entenderá por usos domésticos del agua, los consumos de agua realizados en la vivienda derivados de las actividades residenciales cuyas aguas residuales sean generadas principalmente por el metabolismo humano y las actividades domésticas.

2.– El realizado para operaciones de investigación y control, sondeos experimentales que no sean objeto de aprovechamiento y operaciones de gestión y mejora del dominio público hidráulico, siempre y cuando sean realizadas o promovidas por la Agencia Vasca del Agua o por otras Administraciones públicas bajo el régimen de autorización de la Agencia.

3.– El realizado para uso en operaciones de extinción de incendios y los ordenados por las autoridades públicas en situaciones de extrema necesidad o de catástrofe.

4.– Los usos domésticos del agua en núcleos de población que no dispongan de suministro domiciliario de agua. Esta exención no se aplicará a las viviendas del núcleo de población que efectivamente dispongan de suministro domiciliario.

5.– La captación de agua marina en sustitución del uso de agua dulce.

Para la aplicación de esta exención será necesario que el contribuyente acredite documentalmente a la Agencia Vasca del Agua que dispone de la correspondiente autorización otorgada por la Administración competente.

6.– La reutilización del agua y la utilización no consumitiva para la obtención de energía u otros usos industriales, siempre que no suponga una alteración de la cantidad y la calidad del agua.

Para la aplicación de esta exención el contribuyente acreditará documentalmente a la Agencia Vasca del Agua que dispone de la correspondiente concesión para el aprovechamiento del agua, así como de la autorización para su vertido, otorgadas por la Administración competente en cada caso.

7.– El consumo anual inferior a 50 metros cúbicos que no proceda de suministro de red domiciliaria.

Para la aplicación de esta exención será necesario que el contribuyente acredite documentalmente a la Agencia Vasca del Agua que dispone de la correspondiente concesión o autorización, otorgada por la Administración competente, para dicho aprovechamiento del agua.

**Artículo 6.**– Bonificaciones.

1.– Se bonificará en el 95% de la base imponible el uso del agua correspondiente a la alimentación de

erabiltzeagatik, kaleak garbitzeagatik eta parkeak eta lorategiak ureztatzeagatik, betiere erakunde publikoek zuzenean nahiz zeharka egiten dutenean.

2.– Zerga-oinarriaren % 95eko hobaria emango da, kirol-instalazio publikoetan erabilitako uraren kasuan.

3.– Zerga-oinarriaren % 95eko hobaria emango da, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerako kontsumoagatik, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza alorreko eskumenak dituen organoak EAEko Nekazaritzako Ohitura Onen Kodea betetzen dela egiaztatzen duenean edota ustiapen-koadernoak, Ingurumen arloko Kontratua edo antzeko egiaztagiria dituzten.

4.– Zerga-oinarriaren % 70eko hobaria emango da, industriako erabilerako kontsumoagatik, betiere esku-argarri dauden teknikarik onenak erabiltzen direnean, edo EKOSCANa edo ingurumena kudeatzeko ziurtagiria (EMAS Araudiaren edo ISO 14001 sistemaren aurreikuspenen arabera) lortuta dagoenean.

Industrian erabiltzeko uraren kontsumoa murrizteko plana egiten denean eta Uraren Euskal Agentziak ziurtatzen duenean, hobaria % 90ekoa izango da.

Horretarako, Ekonomia-jardueren 2009ko Sailkapen Nazionalarekin (CNAE-2009) 05 eta 43 atalen arteko jardueretarako egindako ur-kontsumoa, biak barne, industriako erabileratzat hartuko da.

5.– Zerga-oinarriaren % 95eko hobaria emango da, curi-urak edo isurketa-urak erabiliz gero.

**7. artikulua.**– Salbuespenak eta hobariak eskatzea eta ezartzea.

1.– Aurreikusitako salbuespenak eta hobariak ezartzeko, eskaera aurkeztu beharko zaio Uraren Euskal Agentziari, dagokion egiaztagiriarekin batera, ezartzen den ereduaren arabera.

2.– Uraren Euskal Agentziak zergadunari ebazpena jakinarazi eta hurrengo fakturazio-alditik edo adierazpenetik aurrera ezarriko dira salbuespenak eta hobariak, edo, hala dagokionean, erakunde hornitzaileari jakinarazten zaion unetik.

3.– Ura suteak itzaltzeko lanetan erabiltzen den kasuetan eta oso behar handiko egoeretan edo hondamendietan agintari publikoek agindutako erabileretan, aurreikusitako salbuespenak, behar bezala justifikatuta, hornikuntzak edo aprobetxamenduak fakturazten direnean ezarriko dira.

4.– Salbuespenak edo hobariak dagozkien ur-kontsumoak, inoiz ez dituzte gaitzuko emakida edo baimenetan ezarritakoak.

Emakida edo baimeneko baldintzak betetzen ez bada, Uraren Euskal Agentziak kendu egin ahal izango ditu salbuespenak edo hobariak.

fuentes públicas y monumentales, limpieza de calles y riego de parques y jardines, siempre que se realicen por entidades públicas de forma directa o indirecta.

2.– Se bonificará en el 95% de la base imponible el uso del agua correspondiente a instalaciones deportivas públicas.

3.– Se bonificará en el 95% de la base imponible el consumo para uso agropecuario, siempre y cuando se acredite por el órgano sectorial agrario competente de la Comunidad Autónoma del País Vasco el cumplimiento del Código de Buenas Prácticas Agrarias del País Vasco, cuaderno de explotación, Contrato Ambiental u otras acreditaciones similares.

4.– Se bonificará en el 70% de la base imponible el consumo para uso industrial, siempre y cuando se utilicen las mejores técnicas disponibles o se disponga de una certificación de gestión ambiental (de acuerdo con las previsiones del Reglamento EMAS de la Unión Europea o con el sistema ISO 14001) o del EKOSCAN.

Cuando se disponga de un plan de reducción de los consumos de agua para usos industriales certificado por la Agencia Vasca del Agua, la bonificación será del 90%.

A estos efectos, se considerará de uso industrial el consumo de agua realizado por las actividades comprendidas entre las divisiones 05 y 43, ambas incluidas, de la Clasificación Nacional de Actividades Económicas 2009 (CNAE-2009).

5.– Se bonificará en el 95% de la base imponible el uso de aguas pluviales o de escorrentía.

**Artículo 7.**– Solicitud y efectividad de las exenciones y bonificaciones.

1.– Para la aplicación de las exenciones y de las bonificaciones previstas deberá presentarse solicitud, junto con la documentación acreditativa correspondiente, a la Agencia Vasca del Agua conforme al modelo que se establezca.

2.– Las exenciones y bonificaciones se practicarán a partir del siguiente período de facturación o declaración en que la Agencia Vasca del Agua comunique su resolución al contribuyente y, en su caso, a la entidad suministradora.

3.– En los supuestos relativos a los usos del agua en operaciones de extinción de incendios y los ordenados por las autoridades públicas en situaciones de extrema necesidad o de catástrofe, las exenciones previstas se practicarán, debidamente justificadas, en el momento de la facturación de los suministros o aprovechamientos.

4.– Los consumos de agua exentos o bonificados en ningún caso superarán los establecidos en las concesiones o autorizaciones.

En caso de incumplimiento de las condiciones de la concesión o autorización, la Agencia Vasca del Agua podrá retirar el otorgamiento de las exenciones o bonificaciones.

Emakida edo baimenean aldaketak egiten direnean, salbuespenak eta hobariak ezartzeko, artikulua honetako 1. atalean aipatzen den eskaera aurkeztu beharko da.

### III. KAPITULUA ZERGAREN SUBJEKTUAK

#### **8. artikulua.**– Subjektu aktiboa.

Uraren Euskal Agentzia da uraren kanonaren subjektu aktiboa.

#### **9. artikulua.**– Subjektu pasiboak.

Uraren kanonaren subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, indarrean dagoen Tributuen Lege Orokorraren 35.4 artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, eta erakundeak, bajako ura erabiltzen dutenean, dela erakunde hornitzaile batetik jasota, dela emakida bidez hornikuntzarako beren kabuz hartuta.

Xede horretarako, bajako uraren erabiltzaile eta zerganduntzat hartuko da ura kontsumitzen duena, eta ondoko hauek ere bai, aurkako frogarik izan ezean:

a) Ura hornitzeko kontratuaren titularra, ura erakunde hornitzaile batek ematen duenean.

b) Ura hartzeko instalazioen titularra, ura norbere instalazioen bidez hartutakoa denean.

c) Emakidaren titularra, hornitzeko emakida bat dagoenean.

d) Erakunde hornitzaileak, egiten dituzten kontsumoengatik eta hirugarrenei egiten dizkieten doako hornikuntzengatik.

#### **10. artikulua.**– Erakunde hornitzaileak.

Erabiltzaileei ura hornitzen dieten erakundeen esku daude uraren kanonaren kudeaketa eta bilketa, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legean eta araudi honetan ezarritako eran.

Dekretu honen ondorioetarako, ura hornitzen duen erakundetzat hartuko da edozein pertsona fisiko edo juridiko, titulartasun publiko edo pribatuko sare edo instalazioen bitartez ura hornitzen duenean.

### IV. KAPITULUA SORTZAPENA

#### **11. artikulua.**– Sortzapena eta galdagarritasuna.

Uraren kanonaren sortzapena uraren kontsumo erreala edo potentzialaren unean egingo da, egin beharreko diru-sarreraren kopurua galdagarria izan zein ez:

Cuando se produzcan cambios en las condiciones de la concesión o autorización, para la aplicación de exenciones o bonificaciones será necesario presentar la solicitud a la que se refiere el apartado 1 de este artículo.

### CAPÍTULO III SUJETOS DEL TRIBUTO

#### **Artículo 8.**– Sujeto activo.

La Agencia Vasca del Agua es el sujeto activo del canon del agua.

#### **Artículo 9.**– Sujetos pasivos.

Son sujetos pasivos del canon del agua en concepto de contribuyentes las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, y las entidades a que se hace referencia en el artículo 35.4 de la vigente Ley General Tributaria, usuarias del agua en baja, bien la reciban de una entidad suministradora o la capten por medios propios en régimen de concesión de aprovisionamiento o abastecimiento.

A estos efectos, se considerará usuario o usuaria del agua en baja y contribuyente a quien efectivamente realice el consumo del agua, y salvo prueba en contrario:

a) A la persona titular del contrato de suministro de agua, cuando el agua sea proporcionada por una entidad suministradora.

b) A la persona titular de las instalaciones de captación de agua, cuando el agua provenga de una captación mediante instalaciones propias.

c) A la persona titular de la concesión, en el caso de una concesión de aprovisionamiento o abastecimiento.

d) A las entidades suministradoras, por los consumos que realicen y los suministros gratuitos a terceros.

#### **Artículo 10.**– Entidades suministradoras.

Las entidades suministradoras de agua a los usuarios y a las usuarias tienen encomendada la gestión y la recaudación del canon del agua en los términos establecidos en la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas y en este Reglamento.

A estos efectos del presente Decreto se entenderá por entidad suministradora de agua toda persona física o jurídica de cualquier naturaleza que, mediante redes o instalaciones de titularidad pública o privada, haga un suministro de agua.

### CAPÍTULO IV DEVENGO

#### **Artículo 11.**– Devengo y exigibilidad.

El devengo del canon del agua se producirá en el momento del consumo real o potencial del agua, independientemente de que la cantidad a ingresar sea exigible:

a) Aldi berean egingo da ura hornitzeari dagozkion kuoten sortzapena, erakunde hornitzaileek egindako horniduren kasuan.

b) Aldi berean egingo da araudi honen 23. artikuluan aurreikusitako aldizkako autokitapenen aurkezpena, ura hartzea edo aprobetxamendua berek egiten duten erabiltzaileen kasuan.

## V. KAPITULUA ZERGA-OINARRIA

### **12. artikulua.**– Zerga-oinarria.

1.– Kanonaren zerga-oinarria kontsumitu edo erabiltako ur-bolumena da, edo, zenbatekoa den ez jakinez gero, gutxi gorabeherako ur-bolumena, metro kubikotan adierazita.

2.– Zerga-oinarria zehaztea ondoko mota hauetako bakoitzerako ezartzeko arauak betez egin ahal izango da:

- a) Zuzeneko zenbatespen sistema.
- b) Zenbatespen objektiboko sistema.
- c) Zeharkako zenbatespeneko sistema.

### **13. artikulua.**– Zuzeneko zenbatespena.

1.– Zerga-oinarria, modu orokorrean, zuzeneko zenbatespeneko sistemaren bitartez zehaztuko da, kontagailu homologatuekin egindako neurketa bidez.

Xede horretarako, zergadunek beren kontura instalatu eta mantendu beharko dute kontsumitu edo erabiltako ura zuzenean neurtuko duen mekanismo bat.

2.– Erakunde hornitzaileek ematen duten uraren kasuan, fakturatutako denboraldian hornitutako ur-bolumenaren arabera zehaztuko da zerga-oinarria, eta denboraldi hori inola ere ezingo da izan hamabi hilabetetik gorakoa.

### **14. artikulua.**– Zenbatespen objektiboa.

1.– Uraren kontsumoa edo erabilpena zuzenean neurtzeko mekanismorik ez dagoenean eta zuzeneko zenbatespeneko sistema ezarri ezin denean, zenbatespen objektiboko sistemaren bidez zehaztu ahal izango da zerga-oinarria.

Ura arazteko prozesua bete duen ur-hartuneetako uraren kontsumoari ez zaio zenbatespen objektiboaren sistema ezarriko.

2.– Artikulu honetako aurreko ataleko lehen paragrafoan jasotako kasuetan, zenbatespen objektiboaren sistema eskatu ahal izango diote zergadunek Uraren Euskal Agentziari, beren borondatez, ezarriko den ereduaren arabera, eta sortu ahal izango den zerga-oinarria kalkulatzeko sistema ezartzearen gastuak zergadunaren kontura izango dira.

3.– Hornikuntza-emariak zuzenean biltzeko gailuak instalatuta ez dauzkaten ur-harguneak direnean, edo

a) Al mismo tiempo que las cuotas correspondientes al suministro de agua, en el caso de suministros realizados por entidades suministradoras.

b) Al mismo tiempo de la presentación de las autoliquidaciones periódicas previstas en el artículo 23 de este Reglamento, en el caso de usuarios y usuarias de agua de captación o aprovechamiento propio.

## CAPÍTULO V BASE IMPONIBLE

### **Artículo 12.**– Base imponible.

1.– Constituye la base imponible del canon el volumen de agua consumido o utilizado o, en caso de desconocerse éste, el volumen de agua estimado, expresado en metros cúbicos.

2.– La determinación de la base imponible podrá efectuarse aplicando las reglas establecidas para cada una de las siguientes modalidades:

- a) Sistema de estimación directa.
- b) Sistema de estimación objetiva.
- c) Sistema de estimación indirecta.

### **Artículo 13.**– Estimación directa.

1.– La base imponible se determinará, con carácter general, por el sistema de estimación directa a través de la medición efectuada con contadores homologados.

A estos efectos, los contribuyentes y las contribuyentes estarán obligados a instalar y mantener, a su cargo, un mecanismo de medición directa del agua efectivamente consumida o utilizada.

2.– En el caso de agua proporcionada por entidades suministradoras, la base imponible se determinará conforme al volumen de agua suministrado en el período de tiempo facturado, período que en ningún caso podrá exceder de doce meses.

### **Artículo 14.**– Estimación objetiva.

1.– Cuando no existan mecanismos de medición directa del consumo o utilización del agua y no pueda aplicarse el sistema de estimación directa, se podrá determinar la base imponible mediante el sistema de estimación objetiva.

El sistema de estimación objetiva no será de aplicación para el consumo de agua de boca sometida previamente a procesos de potabilización.

2.– En los supuestos contemplados en el primer párrafo del apartado anterior de este artículo, con carácter voluntario, las contribuyentes y los contribuyentes podrán solicitar a la Agencia Vasca del Agua la aplicación del sistema de estimación objetiva, conforme al modelo que se establezca, siendo a su cargo los gastos que la aplicación de este sistema de cálculo de la base imponible pudiera generar.

3.– En las captaciones de agua que no tengan instalados dispositivos de aforo directo de caudales de

eduki arren ez dabiltzanean, dagokion azaleratze-ustiapenaren baimen edo emakida administratiboan emandako urteko ur-bolumen osoaren arabera zehaztuko da zerga-oinarria.

4.– Emakida edo baimen administratiborik ez dagoen kasuetan, edo egon arren baimendu edo emandako ur-bolumen osoa adierazten ez denean, hileko zerga-oinarria ondoko formula hauen arabera zehaztuko da:

a) Lurpeko ur-harguneen kasuan,

$$Q = \frac{37.500 \times P}{h + 20}$$

Non:

– «Q»: hileko zerga-oinarria den, metro kubikotan zenbatetsia,

– «P» talde jasotzailearen edo talde jasotzaileen potentzia izendatua den, kilowatt-etan zenbatetsia,

– «h»: guneko akuiferoaren batez besteko sakontasun dinamikoa den, metrotan neurtua.

b) Edukiera-kontratuen bidezko hornikuntzen kasuan,

$$B = \frac{Z}{S}$$

Non:

– «B»: ur-bolumena den, metro kubikotan neurtua,

– «Z»: uraren salneurri gisa eurotan ordaindutako zenbatekoa den,

– «S»: batez besteko salneurria den, erakundeak hornitutako uraren indarreko tarifen arabera haztatua, udalerrri barruan edo udal mugakideetan kontagailuz neurtutako horniduretan; prezioa erabilera mota berari dagokiona izango da, eta metro kubikoko eurotan emango da.

c) Ekoizpen prozesuetan erabiltzeko euri-uren aprobetxamenduaren kasuan, aintzat hartzeko urteko ur-kopurua ura metatzeko biltegien bolumenaren bikoitza da.

**15. artikulua.**– Zeharkako zenbatespena.

1.– Uraren Euskal Agentziak zeharkako zenbatespeneko sistema erabili ahal izango du, zerga-oinarria zuzeneko zenbatespeneko sistemarekin edo zenbatespen objektiboko sistemarekin zehaztu ezin duenean, gertakari hauetakoren bat dela kausa:

a) Neurtzeko aparatuak instalatzeko betebeharra ez betetzea, betiere zenbatespen objektiboko sistema ezarri ez denean.

b) Adierazpen galagarriak ez aurkeztea, edo aurkeztutakoak gutxiegi edo faltsuak izatea.

suministro, o que teniéndolos, no se hallen en funcionamiento, la base imponible se determinará según el volumen de agua total anual otorgado en la autorización o concesión administrativa de la explotación del alumbramiento de que se trate.

4.– En los supuestos de no existir concesión o autorización administrativa o que, existiendo, no se señale el volumen de agua total autorizado o concedido, la base imponible mensual se determinará de acuerdo con las fórmulas siguientes:

a) En el caso de captaciones de aguas subterráneas,

